

«AMA LUR» eta gogoeta bat.



Pertsona zaharrek ba omen dute ohitura lehenagoko kontuetan jarduteko eta gozatzeko. Gaurkoek ez diete hainbat ardua, ez ajola, eta, baitipait, ez zaizkie gustoko.

Gazteek alderantzira joka ohi dute, gehienetan. Atsegingarriago dute gaurko eginkizunari atxiki eta lehengoez «tabula rasa» egin.

Ba dirudi, estrainako kolpean, jokaera bi hauek erabat direla kontrario ta etsai. Sakonago begiratuaz, ordea, ba liteke besterik izatea.

Kondairak berak ditu alderdi bi hauek eta gehienik ere gizonak egin dezakeana da, alderdi batean edo bestean areago gozatzea ta atsegingintzea, eta berari beha bizitzea, ez ordea, biak elkarregandik osoki deslotzea.

Kondaira-une bakoitzak bere histori-koordinata propioak ditu, bai gizonen bizitzan nola herrien bizitzan ere. Koordinata berezi ta bedegarrik izanik ere, ordea, koordinata hauek berekin daramaten vektore-ildoak lehen-goaren hildotik jarraitzen du. Aintzinerat, bide berriak urratuaz, hori bai, bainan lehengoari jarraiki.

Hau honela, gizonak eta Herriak, nahi ta nahi ez, izandakoaren seme, edo jopu?, gertatzen dire. Gizon ta Herri horren jaurdiera bakoitzak lehen-goaren kutsu ta arrastoa daramate erraietan, ezabatu ezinezkoa.

Iraulketarik gogorreanean ere, nahiz eta iruditu vektore hildoa etena dela eta berriaren hastapenetan gaudela, guztiz besterik gerta ohi da egiazki. Hauxe da, ene iritziz, kondairari ikasi behar diogun funtsezkoena.

Ta hauxe da, baita ere, AMA LUR filmean edo dokumentalean, hobe, ikasi dudana. Gure ohiturak, folkloreak, kondaira gertakizunak oro, inolaz ere, lehenago gauzen atseginginetan (zahar eta gazte, baita, zenbaiten gaitza) bizitzeko, «lilluratuta» (orain artean euskal poesian hainbeste erabili dan hitza, egungo poeta bati entzun diodanez, eta honek ere zerbait esan nahi du) egoteko. Kondaira ez da lehengoei beha ta so gelditzeko, lehendik datorren vektore hildoan aurrerantz jarraitzeko baizik. Horregatik, ez da niretzat filmaren akatsa, hainbatek erantsi nahi diotena: hainbeste gauza azaldu nahiean, ezer ez duela azaltzen. Gaitza ezik, baliogo bat luke hau niretzat. Ez dugu orain artean sortu dugun folklorea pausatu ta gelditu behar. Joanak, ondo dire joanda, eta haxe ondoen. Euskaldunak euskaldun izan behar du bai txistua-ekin mendian edo plazan eta bai egungo dantza-molde berriak dantzatzen, «bluxa»-kin eta «ye-yé» jantzita, baserriko soro-lanean eta Banka-ko eginkizunetan, bertsolariei ta Beatlesi entzuten batera...

Histori-koordinata berezien jabe —eta jopu— gera bat batean. Bada, «herriak izango duen kondaira eguneroko bizitzan eratuko duena da ta ez besterik». (AMA LUR filmeko azken-hitzak, gutxi gora-behera).

J. R. B.

Gaurko "Nota laburra" idatzi dutenak, hauek dira: Rikardo ARREGI, Jose Ramon BELOKI, Karlos SANTAMARIA, Joan Mari TORREALDAY.